**2.1 Helburu zehatza.** Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen aginduak betetzeko helburuarekin, curriculumean genero-ikuspegia gehitzeko hobekuntza-proposamenak lantzea.

| EKINTZAK | ADIERAZLEAK | ARDURADUNAK | ALDIA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2019-2020 | 2020-2021 | 2021-2022 | 2022-2023 |
| **21.** Irakasleei curriculuma genero-ikuspegitik lantzeko jarraibideak eskainiko dizkieten gidak eta materialak egitea curriculumetik, Hezkidetzaren zutabe diren gaietan oinarrituz. | Zutabe bati lotutako material bat, gutxienez, osatu da eta zonako Berritzeguneetako mintegien bidez helarazi da. | • Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza<br>• Berritzegune Nagusia<br>• Emakunde<br>• UAI- Berdintasuneko teknikaria | | X | X | |
| **22.** Curriculumaren hezkidetzako ezarpena erraztuko duen gida bat lantzea (Heziberri). | Gida osatu da eta zonako Berritzeguneetan jorratu da. | • Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza<br>• Berritzegune Nagusia<br>• Zonako Berritzeguneak<br>• Emakunde<br>• UAI- Berdintasuneko teknikaria | | X | X | |
| **23.** Hezkuntza-komunitate osoarentzako hezkidetzari buruzko baliabide-banku bat eskaintzea. | Amarauna webgunean txertatu da baliabide-bankua | • Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza<br>• Berritzegune Nagusia<br>• Emakunde | | | X | X |